

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 16a / 593. zenbakia



**IPINTZAKO
TXAPELKETA
AZKEN
TXANPA!**

LANA: ETXEZ ETXEKO ZERBITZUKOAK SOLUZIOAREN ZAIN/5 • ELKARRIZKETA: IGOR GORDOBIL/9

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: AITOR LIZARRALDE

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 16**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 17**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 18**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 19**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 20**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 21**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- EGUENA, 22**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda)..... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46
- Ertzaintza..... 943 53 47 20
- Osasun etxea..... 943 76 24 40
- Asepeyo..... 943 76 16 43
- Pakea..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
- Odol emaleak..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
- Igerilekuak..... 943 76 20 51
- Kultura etxea..... 943 77 91 58
- Liburutegia..... 943 77 91 62
- Kiroldegia..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia..... 943 76 14 92
- Erregistroa..... 943 76 13 15
- Jardun..... 943 76 36 61
- Idolaz..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
- Postetxea..... 943 76 26 85
- Bedelkar..... 943 76 04 68
- Akulu AEK..... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53
- Bergarako notarioa..... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak: 09:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 13:00. | San Lorentzo
Zapatuak: 20:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30. | Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Antzuola
Domekak: 10:00, 11:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Uzarraga
Lanegunak: 19:30. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Elgeta
Lanegunak: 09:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, uztaileko azken odol ateratzea eguaztenean, hilaren 21ean egingo da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Ohikoa denez, uztailearen 25ean Arantzazura erromesaldia izango da. Bergaratik 09:30ean irtengo dira autobusak. Eguerdiko mezaren ostean bazkaria egongo da Arantzazuko Hospederian. Arratsaldean, autobusak aterako dira Loiolara joateko. Izenematea Agirrebeñan (San Antonion), Zerkauzin (Ozaetan) edo Zatoia dendan (Barrenkalean).

ARITZETAREN ZOZKETA
Aritzeta abesbatzak egindako zozketan, 3.282 izan da saritutako zerbakia. Txartelaren jabeak Luis Laskurain margolariak egindako koadroa eskuratu du. Irabazleak hilabeteko epea izango du saria jasotzeko.

JARDUNEN AGENDA

TRIKITI ETA BERTSO ESKOLA
Trikiti eta bertso eskolaren datorren ikasturteari begira izenematea zabalik dago Jardunen. Argibideak 943 76 08 19 zerbakian.

BEGIRALE LAN POLTSA
9-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak: 943 76 08 19.

KANTU LIBURUXKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN


Loiti angiozartarra, McKinley gailurrean

Ramon Maria Loiti angiozartarrak Alaskako McKinley mendiko gailurra (6.193 m) zapaldu zuen 1994ko ekainaren 8an. Loitik beste zazpi lagunekin egin zuen espedizioa, tartean Felipe Uriarte eta Ramon Agirrerekin. -5 eta -25 gradu arteko tenperaturak izan zituzten. Argazkian, makurtuta, Loiti.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gorraize"



Gorraizia.
— Zer, lanerako esaten jatzunian gorraizia eirre jatzu?

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Astlehena, 12	8 °C
MAXIMOA Martitzena, 13	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	2,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	21 °C	12 °C	- l/m²
Eguena, 8	20 °C	9 °C	- l/m²
Egubakoitza, 9	24 °C	8 °C	1,6 l/m²
Zapatua, 10	21 °C	13 °C	0,9 l/m²
Domeka, 11	20 °C	14 °C	- l/m²
Astlehena, 12	22 °C	8 °C	- l/m²
Martitzena, 13	24 °C	9 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

BANDAREN KONTZERTUA

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, Santa Marina eguna ospatzeko. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren batutapean, Bandak honako pieza hauek joko ditu. *Marcial* (J.M. Domingo), *Pique Dame* (Von Suppé), *Euskeria* (San Miguel), *Songs of states* (N. Iwai) eta *When the saints go marching in* (N. Iwai). Emanaldia Udal Pilotalekuan izango da, 12:30ean hasita. Denboraldiko azken emanaldia egingo du Bandak.



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

EDEL TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ Uda partean gehiago irakurtzen duzu? Gustuko duzu irakurtzea?



ANA GALDOS
40 urte

Bai, badaukat irakurtzeko ohitura eta udan, oporrak ditudanez, denbora luzeagoa daukat irakurtzeko. Momentuan *El código Da Vinci* irakurtzen ari naiz; nobelak gustuko ditut.




BLANCA ETXARRI
60 urte

Batez ere, aldizkariak-eta irakurtzen ditut, baina libururen bat edo beste ere bai. Orain, udan, gehiago irakurtzen dut. Historiari buruzko liburuak atsegin ditut.



JON UNAMUNO
25 urte

Bai, udan denbora libre luzeagoa izaten dut, eta normalean baino gehiago irakurtzen dut urte sasoi honetan. Nobelak ditut gustuko. *La conjura de los necios* irakurtzen nabil orain.



LUIS PLAZAS
38 urte

Ez, ez daukat irakurtzeko zaletasunik. Ez daukat denborarik eta ez naiz sekula irakurlea izan. Informatikaren gaineko aldizkariak-eta irakurtzen ditut, baina libururik ez.



ANGEL PEREZ
35 urte

Urtean zehar irakurtzerik izan ez ditudan liburuak irakurtzeko aprobetxatzen dut uda. Gai askotariko liburuak atsegin ditut; orain informatikari buruzkoak irakurtzen nabil.



NEREA SOTIL
36 urte

Aspaldian ez dut denbora luzerik izan irakurtzeko, umeein-eta. Lehen irakurtzen nuen. Udan aprobetxatuko dut zerbait irakurtzeko. Intrigazko nobelak gustuko ditut.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK GORLAN EGINDAKO INAUSKETA Herritar bat etorri zitzaigun erredakzio-ara bisitan aurreko baten. Gorla Alpino elkarteko bazkidea da bera, eta elkartearen inguruan Iberdrolak egindako inausketa salatu nahi du. Bere esanetan, elkarterako bidea hasten den tokian zuhaitzak modu desegokian moztu dituzte eta, horrez gainera, han laga dituzte adarrak, batu barik. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

San Migel parrokia

Angiozarko San Migel parrokian erreteila egingo dute uda ostean. Eliza egoera txarrean dago.

KIROLA /9

Igor Gordobil, lanean

Bergara KEko preferente mailako entrenatzaile berria elkarriketatu dugu oraingo astean.

KULTURA /13

'Udako gauak'

Los Fabulosos de la Ribera taldeak joko du, gaur, egubakoitza, Espoioian, 22:30ean.

ASTEKO DATUA

26

PENALTI NESKEN FINALEAN, IPINTZAN

Ogizun eta Potzu ta Zapaburuak taldeen arteko finala husnako emaitzarekin amaitu zen. Bi taldetako jokalariek 26 penalti jaurti zituzten txapelduna erabakitzeko. Ogizunek irabazi zuen.

BESTE EKESANA


“

Arku tiroketa egiteko ez da aparteko ezaugarririk behar. Edozein adin edukita egin daitekeen kirola

da. Gainera, kirol oso segurua, kontrakoa dirudien arren. Kirol honetan interesatutako guztiak gurekin harremanetan jarri besterik ez dute. Gezi Bat taldeko ateak zabalik daude herritar guztiondako”
FERNANDO MARKINA / Euskadiko Arku Tiroketa txapelduna
'El Diario Vasco'/02-07-14

“Bergarako igerilekua aspaldiko proiektua da eta oraindik ez da egin, baina gutxienez bideratuta dago; zer egin behar den argi zegoen nik Bergarako Udala utzi nuenean. Dirua dela eta nahi baino geroago hasiko dira lanak; irailean hasiko direla uste dut”
IÑAKI UGARTEBURU / Gipuzkoako Diputazioko Kirol Teknikaria
'Asteleheneko Goienkaria'/02-07-12

BERAIEK DIÑO/E / Iñigo Garitano



Agur

Laster hartuko ditugu gutariko gehienok ustez merezitako oporrak. Eta urtero bezala, hurrengo ikasturteari begira hainbat eta hainbat asmo berriekin itzuliko gara irailean lanera. Eta betiko bezala, horietako gehienak ezin bete ibiliko gara. Ba hori, irailean gauzak orain lagako ditugun bezala aurkituko ditugula. Bueno, aurtengoan guztiak ez. Hainbat urtez goizeroko erritualaren parte izan den zerbait nik faltan botako dut. Lanerako bidean autoa hartu eta egiten dudun lehenengo gaua irratia piztea da. Esango nuke ia instintiboa dela. Ez ordea zein emisore aukeratzea. Eta gogoratzen dudanetik goizetan beti Herri Irratia aukeratzen dut. Zergatik ote? Ez da medio hoberenak dituen, ez da informazioa lehen ematen duena, baina zerbait erakargarria badu apaltasun horrek nigan. Askatasuna, independentzia? Hor aritu den pertsonaia

kurioso baten estiloa agian?

Irailean ez da itzuliko, erretiroa hartu du. Jakina beste batzuk etorriko direla, agian hobeak. Baina hutsunea hor dago. Bere ikuspuntu, iritzi eta hautaketekin askotan ados ez egon arren, erreferente garrantzitsua izan da nire kasuan. Azken egunotan bere lanaz iritziak irakurri eta entzun ditut: bere independentzia, iritziak emateko askatasuna, euskal gizartearen ezaguera sakona... Ia guztiarekin ados. Baina, nik azpimarratuko nuke, itxuraz

bigarren mailakoa izan daitekeen ezaugarri bat: albisteak kontatzeko patxada.

Irrati gehienetako informazioak abiadura handikoak dirudite, esatariak irakurtzen duenaz ezer ez dakienaren inpresioarekin gelditzen naiz. Berarekin ez zait hori inoiz gertatu.

Oraindik ez da astebete joan zenetik eta faltan botatzen dut jadanik.

Agur Mariano.

“Goizetan beti Herri Irratia aukeratzen dut. Zerbait erakargarria badu apaltasun horrek nigan”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA

Aintzane Irizar

Usoa Agirre

Irati Agirreazaldegi

Jon Berezibar

MAKETAZIOA

Maitena Arana

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK

Luis Mari Agirre

Juan Martin Elexpuru

Miguel Angel

Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA

SS-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Goiena
Komunikazio Zentrikak



Argazkian, txistulariak, mazeroak eta Udal Korporazioa 2002ko Santa Marina egunean.

ARTXIBOA

Santa Marinako jaiak ospatuko dira asteburuan

EDU MENDIBIL

Santa Marinako jaiak ospatuko dira aste bukaeran. Bihar, zapatua, Santa Marinako txirrindularitza saria jokatu da, 16:00etan hasita. Gazte mailako txirrindulariak lehiatuko dira eta partaideek 100 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Lasterketa 18:30ak aldera bukatuko da, Matxiategin. Ondoren, 19:00etan, meza izango da Santa

Marinan eta elizkizuna amaitutakoan, 20:00etan, Aritzetak emaldia egingo du. Aritzetak kideek *Falling in love*, *Maria Maialen*, *Contigo en la distancia*, *E preciso continuar* eta *Te quiero* abestuko dituzte. Gauean, berriz, disko-festa izango da Matxiategin, 23:30ean.

MEZA NAGUSIA DOMEKAN

XDomekan Santa Marina eguna ospatuko da. Udal Txistulariek

kalejira egingo dute 09:00etan eta jarraian, 10:30ean, Udal Musika Bandak joko du, kalerik kale. Goizeko 11:30ean meza izango da Santa Marina parrokian, Udaleko korporazioko kideak bertan izango direlarik. Mezaren ondoren, Udal Musika Bandaren kontzertua izango da Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Bandak, Domingo, Von Suppe, San Miguel eta Iwairren piezak joko ditu domekako kontzertuan.

AP-1 autobideko zati berria irekiko dute uztailearen 29an


E.M.

Eibar-Gasteiz autobideko zati berria irekiko dute uztailearen 29an. Hain zuzen ere, Ondartzako ordainlekutik Ipiñarriraino doan errepide zatia da zabalduko dutena. Hasiera baten, Bergara hegoaldea eta iparraldea lotzen dituen errepide zatia uztailearen 7an zabaltekoa zen, baina erai-kuntzako grebaren ondorioz, 22 eguneko atzerapenarekin zabalduko dute. Uztailearen 29an zabalduko duten autobide zatiak 4,4 kilometroko luzera dauka. Ondo-

rioz, Maltzagatik Ipiñarrira bitartean 11,6 km izango ditu oraingoz AP-1 autobideak. Gogoratuko duzue, Maltzaga eta Ondartzara arteko zatia joan den abenduaren 20an ireki zuten.

ORDAINLEKUA, IPIÑARRIN

Telleriako errotondatik gora jarriko dute ordainlekua, Ipiñarrin. AP-1 autobideak eta Beasain-Durango errepideak bat egingo dute bertan. Arrasatetik edo Antzuolatik datozen gidariak erakartzean, Ondartzako sarrerartean trafikoa gutxituko da.



Ordainleku berria Ipiñarri ondoan zabalduko dute.

Lazpiur enpresak Zilarrezko Q-a jaso zuen egubakoitzean

E.M.

Construcciones Mecanicas Lazpiur enpresak Zilarrezko Q-a jaso zuen aurreko egubakoitzean. Besteak beste, Ana Agirrek goraipatu egin zuen etengabeko hobekuntzaren bidean Lazpiurrek egindako lana, eta Urrezko Q-a lortzeko animatu zituen enpresako langileak.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Miguel Lazpiur enpresako gerenteak lantegiaren berri eta Q ziurtagiria jasotzeko egindako lanaren berri eman zien. Ana Agirrek goraipatu egin zuen etengabeko hobekuntzaren bidean Lazpiurrek egindako lana, eta Urrezko Q-a lortzeko animatu zituen enpresako langileak.



Autoen bedeinkazioa egin zuten San Kristobal egunean, Aldai auzoan

Ohiturari jarraituz, zapatuan, zapatuan, San Kristobal egunean, autoen bedeinkazioa egin zuten Aldai Egia auzoan, Angiozarren. Mezaren ostean, Fidel Izagirre apaizak autoak bedeinkatu zituen. Jende ugari elkartu zen eta zapatuan joaterik izan ez zutenek, domekan beste aukera bat izan zuten. Trikitilariak, herri kirolak eta bestelako ekitaldiak izan ziren, giro ederrean.



ATOR LIZARRALDE

Lankideen izenean, argazkikoek Q txiki bana jaso zuten egubakoitzeko ekitaldian.

ARTEA/ Itoginak eta pitzadurak agertu dira azken urteotan eta berritze sakona beharko du parrokiak

Angiozarko San Migel parrokiako erreteila egingo dute uda ostean

EDU MENDIBIL

Angiozarko San Migel parrokia berritzeko lanak hasiko dira udazkenean. Aspaldian egoera txarrean dago eliza. Lehenbizi teilatua konpontzeko lanak egingo dira eta horren ostean azterketa geoteknikoa egingo da, egin beharreko lan integrala zehazteko.

Koldo Apeztegia Donostiako Elizbarrutiko arduradunaren arabera, urtea bukatu baino lehen konpontzeko dute Angiozarko parrokiako teilatua. Lanak San Migel jaien ostean hasiko dira ziurrenik, udazkenean. Erreteila egiteko lanek 126.212 milioi pezeta-ko aurrekontua daukate. Horietatik 60.101 euro Diputazioak ordainduko ditu eta gainerakoa parrokiaren kontura egingo da.

BERRITZE SAKONA

Angiozarko San Migel parrokia egoera txarrean dago eta berau konpontzeko lan integrala egingo dute. Besteak beste, pitzadurak eta itoginak azaldu dira azken urteotan parrokiaren. Horren jatorria zein den argitzeko, azterketa geoteknikoa egingo dute. Behin azterketa hori egin da, egin beharreko lanak zehaztuko dituzte. Edozein modutan ere, berritze sakona beharko du Angiozarko parrokiak.

Diputazioa, Elizbarrutia eta Angiozarko parrokiako ardura-



Irudian, Angiozarko San Migel parrokiako XV. mendeko portada platereskoa.

KAIBIDE/GIL MASSA

dunak aspalditik ari dira arazolari soluzioa topatu nahian. Dagoeneko hainbat tekniko izan dira parrokiaren egoera ikusten eta, esan bezala, udazkenean hasiko

dira lanak.

San Migel parrokiak hainbat lan jasan zituen XVI. mendean zehar eta, zalantzarik gabe, portada platereskoa dugu bere ezau-

garri nagusietako bat. Andres de Mentxaka maisuak 1556. urtean landu zuen plateresko estiloko portada. Zurezko ganga ere baka- rrenetakoa da Euskal Herrian.

Etkez etxeko zerbitzuko langileek soluziorik gabe jarraitzen dute

E.M.

Etkez etxeko zerbitzuko langileek soluziorik gabe jarraitzen dute. Gizaintza enpresak ez du Bergaran zerbitzu hori ematen segituko eta bitartean Udala arazoari soluzioa topatu nahian dabil.

Etkez etxeko zerbitzua Udalak azpikontratatuak Gizaintza SL enpresaren bitartez eskaini izan da. Hain zuzen ere, 29 langilek dihardute etkez etxeko zerbitzuan lanean, herriko 99 etxetan lan egiten dutelarik.

Azken asteotan langileen eta enpresaren arteko gatazka sortu da. Langileek hainbat hobekuntza eskatzen zituzten eta Gizaintzak uko egin die langileen eskakizunei. Hori gutxi balitz, enpresaren egoera larria dela eta, Gizaintzak zerbitzua emateari laga behar izan dio. Hala ere, gaur azka argitzeke daude, tartean



E.M.

Argazkian, etkez etxeko zerbitzuko langile bat bi pertsona zaintzen.

enpresak langileekin dituen zorrak.

Egoera horrela, Udala eta Gizaintzako ordezkariak berriz elkartzekoak ziren gaur, egubakoitza. Esan bezala, langileei zor zaien dirua nork bere gain har-

tuko duen eta etorkizunean zer gertatuko den argitzea falta da, besteak beste. Bien bitartean, etkez etxeko zerbitzuko langileak lanera itzuli dira, ekainaren 30etik uztailaren 6ra bitartean greba egin ondoren.

LABUR

Plastiko bilketa egingo da uztailaren 27an

Mendi Nekazaritza elkarteak deituta, landa gunetarako plastiko bilketa egingo da uztailaren 27an. Belar boletan edota siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza zein negutegietan erabiltzen dena batuko da. Bergaran, Ugarrizan, Murinondon eta San Juanen egingo da bilketa.

Dardo txapelketa gaur gauean Pol-Pol tabernan

Gaur, egubakoitza, dardo txapelketa jokatu da Pol-Pol tabernan, 22:00etan. Izena emateak 2 euro balio du eta lehen hirurendako sariak egingo dira: 100 euro, 50 euro eta 20 eurokoak hain zuzen.

Txapelketa cricket sistema jarraituta jokatu da.

Txalaparta ikastaroa hurrengo astean

Jardun elkarteak antolatuta, txalaparta ikastaroa izango da uztailaren 19tik 23ra bitartean. Eskolak Arrizuriagan izango dira, 18:30etik 20:00etara. Ikastarorako izena emateak 6 euro balio du Jarduneko bazkideendako eta 8 euro gainerakoendako. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.



San Joxepekoak, Kantabriatik Burgosera

San Joxepe elkarteko 60 lagun inguruk hartu zuten parte Kantabriara eginiko irteeran. Besteak beste, Santander, Santillana del Mar edota Altamirako kobazuloak bisitatu zituzten, bi eguneko irteeran. Datorren egunean, hilaren 22an, Burgosera irteera egingo dute, Covarrubias, Santo Domingo de Silos eta Yecla bisitatu.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean


Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan

Astra gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

Olabarrena z/g Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA

MINGAINARITIRAKA



Aquilino Garcia

AQUILINO MARGOAK

Extremaduran jaiotakoa den arren, txikitatik bizi da Bergaran; bederatzi urte zituela etorri zen hona bizi izatera. Handik laster hartu zuen lehen aldiz brotxa, eta ordutik hona horrextan dihardu lanean.

Noiz hartu zenuen lehen aldiz brotxa?

Berrogeita bi urte daramat pintore lanean; hamahiru urterekin hasi nintzen pintore, eskaiolista eta karea arraspatzen Bergarako seminarioan.

Ze kolore gustatzen zaizu gehien?

Moreak, garbantzu koloreak, kalabaza koloreak...

Zure etxea zela daukazu margotuta?

Garbantzu kolorez; ez nuen nik aukeratu kolore hori, gure alabak aukeratu zuen. Moldurak, berriz, marrazkiekin.

Gaur bertan Errioxara joatekoak zarete lanera. Zelan hain urruti?

Enpresa eraikitzaileekin asko lan egiten dugu; horrelako enpresa baten bitartez gabiltza Errioxan; txalet batzuk, jatetxe bat, nekazari etxe bat eta etxebizitza batzuk margotu ditugu hantxe.

Zure lanean zer gustatzen zaizu gehien?

Niri asko gustatzen zait lan egitea; gero, gainera, nire lana oso gustuko dut. Koloreak aukeratzea, lana antolatzea... Asko gustatzen zait hori guztia.

Eta gutxien?

Bezeroren bat gustura geratzen ez denean oso gaizki pasatzen dut, sufritu egiten dut horrekin.

Brotxa eta lan-jantzia lagatzen dituzunean, zer egitea gustatzen zaizu?

Ehiztaria naiz; lagunekin ehizan ibiltzea gustatzen zait eta nire txakurrak zaintzea.

Bergaran zer falta da?

Ezer ere ez; niri izugarri gustatzen zait Bergara, oso gustura bizi naiz hemen.

Eta Bergarako gauzarik onena?

Jendea; bergararrak oso jatorrak iruditzen zaizkit. Beti egoten da salbuespenen bat, baina bueno...

Bukatzeke, amets bat?

Enpresan dena ondo joatea; gainerakoan, nire ametsa da lursail handi bat erosi, ehiza babesleku bat jarri eta lagunak gonbidatu.

KANPOTARRAKBERGARAN

ARGITSU LARA

20 URTE/ MEXIKARRA/ ORAIN DELA BOST URTETIK BIZI DA BERGARAN

“Hemen oso zaila da harreman sendoak egitea; euskaldunok oso itxiak zaretela iruditzen zait”

AINTZANE IRIZAR

Izena entzun genuenean, mexikarra zenik, behintzat, ez zirudien; telefonoz deitu eta erantzun zigunean, berriz, ia segurua zirudien euskalduna zela. Baina, ez. Mexikarra da Argitsu, nahiz eta bere ama bergararra den. Mexikoko Celaya estatuan bizi zen hona etorri zen arte.

Orain dela bost urte etorri zen Argitsu Bergarara bizi izatera; hamasei bat urte zituen orduan. Orduantxe ekin zion euskara ikasteari eta baita ondo ikasi ere. Beste edozein bergararrek bezain ondo egiten du euskaraz.

“Nire ama bergararra da, baina, berak ez zidan euskara irakatsi; hona etorri nintzenean hasi nintzen ikasten, eskolan, eta lagunekin, batez ere”, gogoratzen du Argitsuk. Hona etortzeko arrazoen gainean galdetuta, zera erantzun digu: “Ikasketei dago kienez, hemen ikasketak hobeto egingo nituela pentsatu genuen, eta horregatik etorri nintzen. Osaba-izebekin bizi naiz hemen”, azaldu digu. Ama eta ahizpa txikia Mexikon bizi dira eta anaia zaharragoa, berriz, Bartzelonan dago orain. Amak Mexikon lan egiten du.

Erizaintzako laguntzaile ikasketak egiten dihardu; praktikak egitea besterik ez zaio geratzen ikasketekin amaitzeko. Oraingo astean bertan hasi da lanean Oñatiko zaharren egoitzan; pozik dago lan berriarekin.

Kontatu digunez, oso gustura bizi da hemen Argitsu. “Hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan hemengo bizimodura moldatzea; baina, behin koadrilarekin irteten hasi nintzenetik, oso ondo moldatzen naiz”, diosku.

Euskaldunok oso itxiak gara la esan digu Argitsuk: “Hemen oso zaila da harremanak egitea, harreman sendoak, batez ere. Jendea oso itxia da eta oso zaila da jendearekin konfiantza hartzea”, adierazi digu. Hemengo

“Osaba-izebekin bizi naiz Bergaran; ama eta ahizpa Mexikon bizi dira eta anaia Bartzelonan”

jai-giroa gustuko duen arren, jai-giroko hainbat gauza ez ditu hain gustuko: “Alkohol gehiegi edaten du jendeak”.

MEXIKOKO KLIMA ETA FAMILIA

Hemen gustura bizi den arren, Mexikoren falta ere sumatzen du Argitsuk. Batez ere, familiarena eta klimarena. “Hango beroarekin asko gogoratzen naiz; hemengo klima, egia esan, ez zait bate-

re gustatzen”.

Argitsuk ez du nahi beste ikusten bere familia; orain dela bost urte hona etorri zenetik ez da Mexikora itzuli; kontuan hartu behar da bidaia oso garestia izaten dela.

Hala ere, etorkizunaren gainean galdetuta, ez du bere burua Mexikon bizi izaten ikusten. “Hemen, Bergaran, etorkizun hobeia izan dezakedala iruditzen zait; are gehiago, emakumea izanda. Izan ere, Mexikon emakumeak nahiko baztertuta daude”, azaldu digu. Lan munduan ere halaxe gertatzen dela azaldu digu; kobratu ere gizonezkoek baino gutxiago egiten dute.

Gauzak horrela, Argitsuk nahiago du bere bizitza Bergaran egitea. Hala ere, denborak esango du Argitsuren etorkizuna non dagoen.



AINTZANE IRIZAR

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.

okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

AGIRRE

% 50

PRAKAK 30€

Bidekurutzeta 18 Tel.: 943 76 72 67



Aurtengo finala Ogizun eta Potzu eta Zapaburuak taldeek jokatu zuten.

ESTITXU LOBATO



Kadete mailan, Soraluze eta Bonbo taldeak iritsi ziren finalera.

ESTITXU LOBATO

IPINTZAKO TXAPELKETA

Ogizun nesken taldeak penaltietan irabazi zuen senior mailako Ipintzako finala

Ogizun eta Potzu ta Zapaburuak taldeek husna berdindu zuten eta penaltietan erabaki zen senior mailako txapelketaren Ipintzako finala

JON BEREZIBAR

Ogizun taldea izan da aurtengo senior mailako nesken Ipintzako txapelketa. Penaltietan erabaki zen partidua, 0-0 amaitu baitzuten. Jokalaririk onenaren BERRIGARA saria Oihana Iñurrategiri eman zioten eta golegilerik onena, ostera, Estitxu Lobato izan zen.

Joandako egubakoitz arratsaldean jokatu zen Ipintzako senior nesken txapelketa. Aurtengo irabazlea Ogizun taldea izan zen, Potzu eta Zapaburuak taldeari irabazi osten. Partidua oso berdinduta egon zen eta joko polita erakutsi zuten, baina husnako berdinketarekin amaitu zuten eta penaltietan erabaki zuten txapelketa. Guztira, 26 penalti jaur-

tiketa egin zituzten eta azkenean 6-5eko emaitzarekin amaitu zuten. Estitxu eta Sokoak, Ogizunekoak, gol bina sartzea lortu zuten bukaeran, orduan atera ziren txapelketa. Arratsalde horretan bertan ere 3 eta 4. postuak jokatu ziren. Ou Pitxu Ou! taldeak 5-1 irabazi zion A Willy Willyri. Rachel Olabarriak 3 gol sartu zituen partiduan eta horri esker irabazi ahal izan zuten.

Finalarekin batera, jokalaririk onenei sariak eman zizkieten. Senior mailako jokalaririk onena Oihana Iñurrategi aukeratu dute aurtentz, A Willy Willy! taldekoa, eta golegilearen saria Estitxu Lobatori eman zioten, aurtengo txapelketa taldekoa.

Nesken senior mailako finalaz gain, kadeteetan ere azken partidua jokatu ziren egubakoitze-

an. Maila honetan Soraluze A atera da txapelketa, Bonbo taldeari 7-1 irabazita. Emaitza ez zen horren nabarmena izan 3. eta 4. postuetan. Izan ere, Soraluze B izan zen garailea, Olaiaren taldeari 2-0 irabazita. Halaber, maila honetan ere sari bereziak eman ziren. Jokalaririk onena Enara Oñederra izan zen eta golegilea, ostera, Alana Berraondo, biak Soraluze taldekoak.

MUTILEN FINALA

Ipintzako senior mutilen finalari dagokionez, gaur 19:30ean jokatu da A Ze Flaxa-Guipuzcoana eta Fo Fo Fo taldeen arteko partidua. A Ze Flaxak Bildurbarek taldea garaitu zuen asteleheneko finalerdian, 2-1. Fo Fo Fo Gore taldeari penaltietan irabazita sailkatu da finalerako.



Arloteak eta Soraluze taldeak egubakoitzeko finalaren ostean, jasotako trofeoekin. Aurtentz, kadete mailako txapelketa Soraluze taldekoak izan dira.



Oihana Iñurrategi jokalaririk onenaren saria jaso zuen Edu Mendibilen eskutik.



Enara Oñederra, kadeterik onena, David Lopez de Abetukorekin.



Estitxu Lobatori Bittor Agirrebarrenak eman zion golegilearen saria.



Alana Berraondori Igor Larrañagak eman zion golegile onenaren saria.



Atezainik onena Sokoak Azkarate izan da, argazkian Igor Larrañagarekin.



Idoia Rubial txapelketa taldekoa, Valentin Egidazu zinegotziarekin.

ELKARRIZKETA

IGOR GORDOBIL/BERGARA FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Taldeak badauka kalitatea, eta joko ona egiten saiatuko gara"

J.B.

UDA taldean hiru urte lanean ibili ostean, Bergara KEko preferente mailako entrenatzailea da Gordobil. Gertutik ezagutzen duen taldea da eta maila altukoa dela esaten du. Entrenamenduekin astlehenean hasi ziren.

Nolakoa izan da taldearekin lehen kontaktua?

Oso positiboa esango nuke. Egia esan, Bergarako taldea ez zitzaidan erabat ezeguna egiten, jokalar asko aurretik ezagutzen nituen eta oso gustura nago. Bergaran jendea oso inplikatur dagoela ikusten da eta hori eskertzekoa da. Jendea laguntzeko beti prest ikusi dut. Guztion laguntzarekin denboraldi oso ona egin dezakegu.

Nolako harrera egin dizute jokalariek?

Oso ona. Aurretik, lehen kontaktua egin geneukan, elkarrizketa pertsonalak egin baike nituen. Hasierak beti izan ohi dira gogorak, denok elkar ondo ezagutu arte urduri egoten garelako. Elkar ezagutzeko denbora dugu.

Helburu zehatzik finkatu duzue?

Guk daukagun helburua garbia da. Kanpoan zein etxean berdin jokatu, jokalariek zelaitik burua altu eramanda irtetea nahi



ARTXIBOA

dugu. Jarrera hori erakutsi behar dute taldekoek, iritzi ona sortu. Hau horrela eginda, noski, emaitzetan igarri egingo da. Gure jokoa zein den erakutsi behar dugu, seriotasunarekin eta lan gogorarekin.

Entrenatzaile berriarekin aldaketarik sumatuko dute zaleek?

Entrenatzaile bakoitzak bere futbola egiteko era dauka. Futbola era zuzenean edo motzean joka daiteke eta gu bi moduak uztartzen saiatuko gara. Ahal den neurrian, horrek lan handia eskatzen baitu. Taldeak badauka kalitatea. Nik motzean egindako jokoari emango diot eta ikusleak esan beharko du nabaritzen den.

FOTOKIROLA



Zalla aldera irteera egin zuten Bergarako zikloturistek


Joandako asteburuan egin zuten Txirrindulari elkarteak urtero egin ohi duten txangoa. Aurtengo Zalla aldera egin dute, Tornos mendatea eta hango inguruak ezagutzeko aukerarekin. Urtero bezala, hogeita hamar bat txirrinduzalek hartu zuten parte txangoan. Goizean goiz abiatu ziren Zalla alderantz eta egun bikaina pasatzeko aukera izan zuten. //J.B.

Igeriketakoek emaitza onak Euskadiko txapelketan

J.B.

Gipuzkoako txapelketako emaitzak hobetu zituzten igeriketa taldekoek joan den asteburuan, Euskadiko junior, promesa eta absolutu mailetakoko txapelketan. Junior mailan, Neritzel Albi-suak eta Elixabeth Laskurainek oso marka onak egin zituzten.

Lehenak laugarren postua lortu zuten 200 m bularretan eta Elixabeth zazpigarren iritsi zen 50 m tximeletan. Absolutu mailan Ana Balentziaga eta Nerea Anduagak egin zuten igeri. 4x50 estiloetan 12. postua eskuratu zuten laukoteak. Elixabeth Laskurain, 50 m tximeletan 14. iritsi zen eta Ana Balentziaga 31. lekuan 100 m libreetan.



ARTXIBOA

Proba 18:30ak aldera amaituko da, Matxiategiko helmugan.

Santa Marinako gazteen txirrindulari lasterketa bihar

J.B.

Bihar arratsaldean egingo da urteroko Santa Marinako txirrindulari lasterketa. Lokatza taldeak antolatuta, aurtengoa lehiaketaren XIII. edizioa izango da. Arratsaldeko lauretan hasiko da lasterketa Bergaratik eta helmuga Matxiategi kalean izango da. Guztira, 100 kilometroko ibilbide luzea egin beharko dute txirrindulariek.

Gipuzkoako gazte mailako 70 bat txirrindularik hartu ohi dute esku Santa Marinako proban,

dagoeneko klasiko bihurtu den lasterketa honetan. Batez ere, bailara eta inguruak ziklistek eman ohi dute izena lasterketan, baina antolatzaileen nahia ahalik eta kanpoko jende gehien etortzea da. Ibilbidea 100 bat kilometrokoa da. Arratsaldeko lauretan irtengo dira Osintxutik eta Eskoriatzara egin beharko dute joan-etorria. Ondoren, Oñatira eta Urretxuraino joango dira atzera Bergarara itzultzeko. Gogorra ez bada ere, luzea da proba hau.

Txirrindulariak 18:30ak aldera iritsiko dira helmugara.

FUTBOLA

Bergarako kirol elkarteak gaur egingo du urteko ohiko batzar orokorra

Gaur, arratsaldeko zazpitan hasiko da Bergara kirol elkarteak urteko ohiko batzar orokorra. Bi deialdi egongo dira: lehenengo txanda arratsaldeko zazpitan izango da eta hurrengo zazpi eta erdietan. Kultur etxean egingo da bilera eta ohiko gaiak jorratuko dituzte. Iazko akta irakurri eta onartu ostean, aurtengo txostena aurkeztuko dute urteko balantzearekin batera.

ARKU TIROKETA

Fernando Markinak Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa irabazi zuen 70 metroan

Aparteko sasoiak dagoela erakusten ari da Fernando Markina arku-laria. Espainiako txapelketan lan bikaina eginda, joan den asteburuan ere emaitza oso onak atera zituen. Euskadiko Txapelketa Absolutua jokatu zen uztailaren 10eko asteburuan eta Fernando lehena izan da 70 metroan. Hurrengo zita Espainiako absolutu mailako txapelketan izango da, hilaren amaieran, Lleidan.

Gora Santamñak!



IRUDIAK: MAITENA ARANA

ITZIAR MERTZERIA Matxiategi 1

SALOKI MERTZERIA Matxiategi 2

HERRAN Matxiategi 3-4

GOROSTI LORADENDA Matxiategi 3

BEROTZI ILEAPAINDEGIA Fleming 5

ANTIA HARATEGIA Matxiategi 8

MIZPILDI OKINTEGIA Matxiategi 1

ELADIO OINETAKOAK Matxiategi 2

ONDA SUPERMERKATUA Matxiategi 7

AKORT PUBLIZITATEA Mugertza 7

JUANA ELGETARRA MERTZERIA Zubieta 38

YON BILBAO ELEKTRIZITATEA Fleming 11

IKASLE LIBURUDENDA Fleming 11

AINHOA ERLOJU DENDA Boni Laskurain 2

ESTELLA ORTOPEDIA Matxiategi 5

AMPARO ILE APAINDEGIA Boni Laskurain 2

ETXALAR Boni Laskurain 4

ETXEBERRIA ESTANKOA Fleming 7



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 29. zenbakia

IEPA LAGUNOK!

Zelako azkar pasatu dan ikasturtia! Emoten dau orain dala hillabete hasi giñala elkar ez gutzen eta dagoeneko 5 hillabete pasa dira astero-astero zuekin elkartzen hasi nintzanetik. Orain atsedenerako garaixa heldu da. Zelako ondo egoten dan hondartzan lasai etzanda, freskagarri bat eskuetan. Ondo segi oporretan!!



URREZKO ARAUAK

- Bigarren intxaurra joko dot.
- Ona egingo baleu, zugana juango giñake.



- ~~Bigarren intxaurrari joko dotsat.~~
- ~~Ona egingo baleu, zugana juango giñen.~~



LOTU MARRAZKIXAK ESALDIXEKIN



1

A. Gaur dagan eguzkixarekin eurixá egingo baleu, ortzadarra irtengo litzake.



4

E. Dirua edukiko baneu, Aitorri errealeko kamisetia erregalatuko notsake.



2

B. Atzo aittittarekin parkian pasiatzen ikusi ziñuztan.



5

F. Gurasuak arbolara ixota ikusi gaittue.



3

D. Eguraldi ona egingo baleu, igerilekuetara juango giñake.



6

G. Pirataz jantzitta ez zaittut ezagutu be egin.

INTXAURRETAN

Aste honetan azalduko dotsuedan jolasa antziñako jolas bat da, gure guraso eta aittajaun-amandrien garaikua. Ia akordatzen diren!!

Partaidiak egongo diren tokitik 5 metro ingurura partaide bakoitzak intxaur bat jarriko dau. Intxaur danak lerruan egon biharko dira. Intxaur danen erdixan fruitu txikixago bat jarriko da (adibidez, urra).

Jokalarixak, eskuetan intxaur bat daukatela, zein intxaur joko daben esan biharko dabe (Adibidez: "bigarren intxaurra joko dot"). Eta esaten daben intxaurra joko baleu, intxaur hori berarentzako izango litzake, eta fruitu txikixa lerrotik etaratzia lortuko baleu, lerruan daren fruitu danak irabaziko litzuzke.



ZAHARRAKBERRI

Urrian ospatuko den Kultur Hamabostaldia prestatzen hasi dira San Joxepeko kideak

EDU MENDIBIL

San Joxepeko zuzendaritza batzardea udazkenean ospatuko den Kultur Hamabostaldia prestatzen hasi da dagoeneko. Urriaren 18tik 30era hainbat ekitaldi egingo dituzte erretiratuak.

Matia Fundazioko Ingema institutuarekin batera antolatuko du San Joxepe elkarteak aurtengo Kultur Hamabostaldia. Eguaztenean Ingemako eta San San Joxepeko zuzendaritzako kideak biltzekoak ziren, egitarauaren nondik norakoak zehazteko. Aurtun leloa zein izango den erabakitzeke dago oraindik.

Edozelan ere, urriaren 18tik 30era bitartean hitzaldiak, musika emanaldiak, erakusketak, irteerak eta bestelako ekitaldiak izango dira. Kultur Hamabostaldiaren zortzigarren ekitaldia izango da aurtengoa. Juan Iturralde San Joxepeko presidentek zera adierazi digu: "Aurrekoetan bezala, erretiratuak ez ezik, adin ezberdineko herritarrak erakarri nahi ditugu ekitaldietara".



Argazkian, joan den urteko Kultur Hamabostaldiko inaugurazio ekitaldia.

SAN JOXEKO EREDUA, LAS PALMASEN
Bestalde, Izarne Lizaso EHUko Psikologia Fakultateko irakasleak San Joxepe elkartearen funtzionamenduaren berri eman

zuen Kanariar Uhartean ospatutako Espainiako Geriatria eta Gerontologia elkarteko 66. Kongresuan. Espainia osoko adituak elkartu ziren Las Palmasen, ekai-

naren 9tik 12ra bitartean. Psikologia Fakultatearekin lankidetzan, San Joxepetik elkartearen funtzionamendua hobetzeko egingandako lana azaldu zuen Lizasok.

LABUR

Donostiara joateko irteera abuztuaren 14an, suak ikustera

Urtero moduan, San Joxepe elkarteak Donostiako suzko erruberak ikustera joateko irteera egingo du, abuztuaren 14an hain zuzen ere.

Oraindik irteera ordua zehazteke dagoen arren, arratsalde partean aterako dira erretiratuak eta gauerdia aldera itzuliko dira, autobusez. Izena emateko edota argibideak jasotzeko 943 76 30 09 telefonora dei dezakezue.

Antolin Marchena, Gipuzkoako xake txapeldunordea




Antolin Marchena San Joxepe elkarteko kidea txapeldunorde geratu zen Gipuzkoako erretiratuaren arteko xake txapelketan. Altxako finalaren aurretik, lau kanporaketa gainditu zituen Marchenak: Arrasaten Debagoieneko txapela irabazi ondoren, Legazpin, Zumarragan eta Tolosan garaile atera zen. Altxan, esan bezala, txapeldunordeari zegokion trofeo eskuratu zuen Marchenak.

Barceló



Bidaiak

AUKERARIK ONENAK



EGIPTO

15 egun **769€-tik** aurrera
11 egun **259€-tik** aurrera
8 egun **198€-tik** aurrera

THAILANDIA

12 egun **1.089 €-tik** aurrera

MALLORCA

8 egun **256€-tik** aurrera

PUNTA CANA

9 egun **450€-tik** aurrera

TURKIA

8 egun **299€-tik** aurrera

RIVIERA MAYA

9 egun **830€-tik** aurrera

Karburantzearen igoera, tasak eta gestio gastuak ez daude barne.

'UDA KO GAUAK' / Taldea 1980ko hamarkadaren amaieran sortu zen, eta lan bakarra plazaratu dute

Los Fastuosos de la Ribera taldearen emanaldia gaur gauean Espoloian

EDU MENDIBIL

Udako gauak programarekin jarraituz, Los Fastuosos de la Ribera musika taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:30ean hasitan. Rythm&blues eta funky musika ekarriko du talde bilbotarrak Espoloiko kioskoran.

Talde beteranoa dugu Los Fastuosos de la Ribera. Taldea 1980ko hamarkadaren amaieran sortu zen, Bilbon eta izena The Fabulous Thunderbirds taldeari zor diote. Halaxe azaldu digu Mario Gómez taldeko kideak: "The Fabulous Thunderbirds taldea betitik gustatu zaigu eta taldekide baten amonak *Los chicos de la Ribera* deitzen zigun jotzen hasi ginenean, Deustukoak garelako, Nerbioi ibaiaren erribera ondokoak hain zuzen".

Esan bezala, taldeak ibilbide luzea dauka eta urte hauetan guztietan aldaketa dezente egon da musikariei dagokienean. Gaur egun honako hauek osatzen dute taldea: Montxo Gomez (ahotsa eta gitarra), Paco Ormaetxea (baxua), Mario Gomez (gitarra eta koroak), Juan Feijoo (saxoa eta ahotsa), Jorge Hernandez (bateria) eta Carlos Joverrek (harmonika).

ESKARMENTU HANDIKO MUSIKARIAK
Aurretik Bazar Central taldean ibilitako Gomez anaiek hasierahasieratik dihardute Los Fastuosos-ekin. Gainerako taldekideak beranduago iritsi ziren. Edozelan ere, guztiek esperientzia daukate beste talde batzuekin. Mario Gomezen hitzetan, "aurreko esperientzien ondorioz, musikari zailduak ginela esan daite-



Argazkian, Los Fastuosos de la Ribera taldeko kideak.

ke, eta talde egonkorrago bat izateko asmoz jaio zen Los Fastuosos. Eta pentsa zenbat urte igaro diren ordutik, gu ere harrিতuta gaude horrenbeste urte iraua dugulako".

Los Fastuosos taldea zuzeneko emanaldietan murgiltzen da gusturen: "Zuzenekoetan gozatu egiten dugu: rythm-and-blues, funky eta blues jotzeaz gain, eguneroko gaiak komentatu, albisteen ikuspegi ezberdin bat egin, umorea landu eta, azken baten, gure emanaldietara datorren jendeak ondo pasatzen ahalegintzen gara. Ez da gutxi".

*Rythm-and-blues,
funky eta blues
klasikoa tartekatzen
ditu Los Fastuosos
taldeak*

Bilbotarrek lan bakarra plazaratu dute orain arte: *Dios los junta*, 2000. urtean Urdulizko Tio Pete estudioan grabatutakoa. Hala ere, aipatutako diskotik

abesti bakar batzuk joko dituzte gaurko emanaldian. Taldearen abesti propioak eta hainbat kantuek ezagunen bertsiak tartekatuko dituzte: bertsioren artean, besteak beste, Barrence Whitefield, The Fabulous Thunderbirds, Gary Primich eta Maceo Parker-en abestiak joko dituzte.

KEBAB TALDEA HILAREN 23AN

Datorren egubakoitzean, hilaren 23an, Kebab taldearen jazz kontzertua Espoloian da, 22:30ean. *Udako gauak* programako azken musika emanaldia izango da.

LABUR

Oihulariren 'Zai beti zai' eguaztenean Pol-Polen

Oihulari Klown antzerki taldeak *Zai beti zai* izenburuko lana eskainiko du datorren eguaztenean, hilaren 21ean, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Virginia Imazek idatzi eta zuzendutako lan honetan, Puxika eta Gregoreta izeneko pailazoak dira protagonistak. Beraien ametsetako gizonaren zai daude biak, baina printze urdina ez da inondik agertzen. Ikusleen konplizitate bilatu nahirik, beraien zirrara eta emozioen berri emango dute pailazoek.


Udal Musika Bandaren kontzertua domekan

Santa Marinako jaien egitarauaren barne, Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Ondoko piezak joko dituzte Bandako kideek: *Marcial* (J.M. Domingo), *Pique dame* (Von Suppé), *Euskaria* (San Miguel), *Songs of states* (N. Iwai) eta *When the saints go marching in* (N. Iwai).

Hiru talderen kontzertua zapatuan gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da Bergarako gaztetxean, 22:30ean hasita. Bartzelonako Virulentos taldearekin batera, Hasta Encontrar Algo Mejor talde iruindarrak eta Leongo Hachazo taldeak joko dute. Rock gaua, beraz, gaztetxean bihar.

Biharko emanaldirako sarrera doan izango da.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Etxepe honetan 1977an sortutako elkarte bat dago. Zein da bere izena?

BERGARAROSPETSUAK

Remigio Muxika (eta 2)

KOLDO PEREIRA

Madrilgo prentsak izugarriko meritua eman zion *Requiem aleman*-en kontzertuari, eta biziki azpimarratu zuten Muxikak antolatzeke zuen gaitasun aparta: "Harritzekoa da gizon batek horrenbeste dohain izatea, eta bere batutaren bidez orfeoi osoa zuzentzen duena musikaria baino zerbait gehiago dela pentsatu behar dugu. Zuzendari lasaia eta musikari trebea da. Zuzendariak sorterriaren, sustraietz lotuta dagoen herriaren espirituaren ordezkaria balitz bezala hartzen du korua. Bada, Muxika Maisuaren Orfeoia pozik egoteko moduan dago bere zuzendariarekin, eta baita Remigio Muxika orfeoiko musikari bikainekin ere".

On Remigioren soloak apartak ei ziren, ahots paregabea, ederra eta malgua zuelako. Gaiarreren hilotzaren aurrean, Diputazioan, solo hunkigarriak kantatu zituen. Besteak beste, Bergarako eta Iruñeko Seme Kutun, Isabel Katolikoaren Zaldun, Karlos III.aren Espainiar Ordena Txiki, Agurgarriko Zaldun eta Alfontso XII.aren Ordenako Komendadore Arrunt izendatu zuten.

On Remigioren soloak apartak ei ziren, ahots paregabea, ederra eta malgua zuelako

GALDEDEBALDE

1.

Zein altuera dauka Alaskako McKinley mendiak?

- A/ 8.354 m.
- B/ 6.193 m.
- C/ 5.963 m.

2.

Emakumezkoen senior mailan, zein taldek irabazi du Ipintzako txapelketa?

- A/ Ogizun.
- B/ Potzu ta Zapaburuak.
- C/ Ou pitxu ou!

3.

Zein da Los Fastuosos de la Ribera taldeak kaleratutako diskoaren izenburua?

- A/ Deusto sound.
- B/ Dios los junta.
- C/ Blues gauak.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

UNAX FERNANDEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, **Unax!** Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Ezkerrekoa, Moyua-Barrena jauregia; eskumakoa, Arrese Etxea.** / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Coca-Cola

12 latako packa.

4,63 €

770 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Muxikari eskaintako plaka, Barrenkale 44an.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Tourra 2004

Uztailaren 19an, astelehena, 20:30ean



Ikustekoa!

TOURRA
2004
Babeslea:



MUEBLES FERNANDEZ



ERRETRATUZHARRA

ELGETA

Herriko dantzariak Euskal Jaian

Dantza Plazara argazki erakusketa egon da ikusgai Espaloia Kafe Antzokian. Jende asko pasa da bertatik dantzaren inguruko erretratuak ikustera, baina jakin bada-kigu beste asko argazkiak ikusteko gogoz geratu direla.

Herriko dantzari askok ezagutu du bere burua argazkiotan eta guk adibide modura bat ekarri dugu atal honetara.

Orain dela 35 urte inguru ateratako argazkia da honako hau. Euskal Jaia egi-ten zen orduan ere Elgetan, eta kanpotik dantzari asko gerturatzen zen, inguruko herrietako taldeetakoak batik bat.

Baina kanpotik joandakoekin batera Elgetako gaztetxoek ere dantzarako dohai-nak erakusten zituzten jendaurrean. Ozkarbi elkarteko dantza taldean jarduten zuten, eta eurak ere beste herri batzue-tako euskal jaietara joaten ziren.

Udaletxeko arkupetik irten eta Zinta Dantza egin zuten egun hartan argazkian agertzen diren neskatilek. Hona hemen erretratuan azaltzen direnak.

Ezkerrean, aurretik atzera: Izaskun Olabarria, Maria Jesus Irazabal eta Mer-txe Alberdi.

Erdian: Jorge Iturricastillo.

Eskuman, aurretik atzera: Jesusa Iza-girre, Maria Eugenia Plagaro, Mari Tere Olabarria, Maria Eugenia Irazabal eta Maribel Retolatza.

Argazkia: Joakin Gastezi.



ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

Dixula BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko uztailaren 16a / 210. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


GOITBko jaietako programa berezia ikusi ahal izango dugu

AINTZANE IRIZAR

Jaietako ekitaldi askotan ikusiko ditugu oraingo asteburuan GOITBko kamerak. Izan ere, datorren asterako Antzuolako jaien gaineko programa berezia egingo dute. Aurten, gainera, herritar askok izango du bere etxean programa hori ikusteko aukera.

Dagoeneko Antzuolako hainbat etxebizitzatan ikusten dute GOITB. Orain dela aste batzuk jarri zuen GOITBk antena Antzuolan, Altzeta baserriaren ondoan, hain zuzen ere. Beste etxebizitza batzuetan, baina, oraindik ezin dute Goiena Telebista ikusi. Kontua da antena kolektiboa duten etxebizitza-multzoetan 40. kanalerako anplifikadorea jarri behar dela. Anplifikadore hori edozein instalatzailek jarri dezake eta ez da garestia izaten, kontuan hartuta bizilagun guztien artean ordaindu behar dela. Antena arrunten kasuan, berriz, nahikoa da telebista sintonizatzearekin.

Antzuolako Udaleko eta Goienako arduradunek esan digutenez, Jaurlaritzak antenen kudeaketarako duen enpresa-



ARTIBOIA

Jaien gaineko programa berezia ikusteko aukera izango dugu astelehenean eta eguaztenean.

rekin dihardute negoziatzen baimen eta ordainketa kontuak. Horregatik, oraindik ez dago baimen ofizialik, baina, espero dute laster izango dituztela baimen guztiak.

ASTELEHENEAN, PROGRAMA BEREZIA
Gauzak horrela, herritar askok izango du aukera GOITBk astelehenean emitituko duen jaien gaineko programa berezia ikusteko. Astelehenean, hilak 19,

gaueko hamarretan ikusi ahal izango dugu programa hori. Eguaztenean, berriz, errepikapena botako dute, 20:30ean. Antzuolako jaietara errepasoa egingo diote programa horretan.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria • Langilea

Mairua pateran

Alkateak jaietako agurrean hauxe esan digu: "Urtebete Udalean pasa ondoren ilusio eta proiektuz beteta jarraitzen dugu Antzuolaren etorkizunerako". Esaldi borobila! Gertu Gaeko hiru zinegotziak baztertzeko ilusiorik behintzat ez dute falta. Gero hitz politekin *Goienkaria*-n idazten dute Gertu Gae inongo oztoporik gabe dagoela Udalean. Inongo oztoporik gabe? Goizeko zortietan lanordutan plenoa jartzea ez al da oztopoa? Plenotan galdetu behar duguna hiru egun lehenago esan behar izatea ez al da oztopoa? Gainera, gure zine-

gotzi postua bereganatu zuenaren dimisioaren errudunak gu garela diote. Mehatxuak egon direla diote, ondo dakitenean inongo mehatxurik ez dela izan.

Alkateak proiektuz beteta daudela esaten duenean bete-betean asmatzen du. Urtebete honetan proiektuak aurkeztea besterik ez dute egin. Lehenengo aurkezpenean Txabarri ekarri zuten. Handik gutxira, proiektu



"Urtebete honetan proiektuak aurkeztu besterik ez dute egin"

hauek alde batera laga eta beste batzuk aurkezteko ez zuten Txabarri ekarri. Eta orain, bigarren proiektu hauek ahaztu eta hirugarren batzuk dituzte esku artean; hala ere, badirudi ez dutela hirugarren aurkezpen publikorik egingo, herritar gehienak kontra daude eta.

Laburbilduz, hauxe da oraingo proiektuen asmoa: kanpo gorrian 50 etxebi-

zitza kalzadorearekin sartu eta horko etxeekin espekulatuz ateratako diruarekin Sagastiko zelaigunean, parkea egin beharrean, kultur etxea egin. Baina lasai, beste eraikin honen teilatuan berdegunea jarriko dute! Ideia ona da berdeguneak berreskuratzeko etxeetan teila berdeak jartzea.

Eta hau guztia gutxi balitz, herriko plazatik erreka zabalik egitekoak omen dira. Datorren urtean beharbada mairua astoan joan beharrean errekan behera pateran etorriko zaigu, beste mairu asko Afrikatik Europara etortzen den bezala.

LABUR

Valdejunquerakoak etorriko dira zapatuan jaietara

Valdejunquerako Muez herriko ordezkariek etorriko dira bihar, zapatua, herrira. Urrian herriko erretiratuak egon ziren hantxe, eta plaka bat jarri zuten Valdejunquerako bataila gogoratzeko. Bihar Udalak plaka bat eman go die eta Alardea ikusteko aukera izango dute.

AKEk urteko batzarra egin du oraingo astean

Martitzenean, hilak 13, egin zuen urteko batzar orokorra Antzuola Kirol Elkartek. Hantxe, besteak beste, datorren denboraldiari begira erregional mailako taldea osatzeko izango dituzten zailtasunen gainean berba egin zuten kirol elkarte arduradunek.

Frontoi bideko kantoian piboteak jarriko dituzte

Frontoi bideko kantoian hainbat pibote jarriko dituzte. Udalen helburua da kanto hori oinezkoendako bidea izatea. Gainera, autoen zirkulaziorako gune arriskutsua izan da beti toki hori. Emergentsietarako eta kasu jakinetarako bakarrik kendu ahal izango dira piboteak.

Paper eta kartoi edukiontzia gainezka egon da

Astelehenera arte gainezka egon da Sagastiko kartoi edukiontzia. Edukiontzia beteta zegoenez, jendea kartoiak kanpoan lagatzen hasi zen. Hainbat bizilagunek esan digunez, edukiontzia hustu zuten, baina, kanpoan zeuden kartoiak hantxe laga zituzten. Dagoeneko horrelakorik berriro ez gertatzea eskatzen diote.

ELKARRIZKETA

ANDOITZ PEÑAGARIKANO/VILARIÑOREN LAGUNTZAILEA

"Vilariñorekin lan egitea ikasteko aukera paregabea da niretako; haren mekanikoari laguntzen ibiltzen naiz"

A.I.


Ingeniaritza Mekanikoa ikasten dihardu Andoitzek. Unibertsitateko ikasketekin batera, Vilariñoren tailerlean ere jarduten du; tailerreko mekaniko profesionalari laguntzen ibiltzen da Olaberriako tailerlean.

Andres Vilariñori laguntzen ibiltzen zara. Zer lan egiten duzu?

Andresen eta Angela bere alabaren autoak zaintzen eta konpontzen laguntzen diot mekanikoari. Olaberriko, kart zirkuituaren ondoan daukate tailerra, eta mekaniko profesional batek lan egiten du hantxe. Ni berari laguntzera joaten naiz, astean behin. Lan konplexurik ez dut egiten, baina, ikasteko aukera paregabea da niretako.

Zela sortu zitzaizun aukerak hori?

Gure aita mekanikoa izan zen gaztetan eta Andres Vilariñore-



A.I.

"Ingeniaritza Mekanikoa ikasten dihardut, eta autoen ekipo baten lan egin nahiko nuke"

kin harremana zeukan. Andresek mekaniko gazte batekin lanean hastea nahi zuen; aitzak berarekin berba egin zuen eta horrelaxe hasi nintzen. Egia esan, ez da lan bat; zaletasun moduan nabil.

Zelatan sortu zitzaizun autoekiko zaletasuna?

Esan bezala, aita pilotoen mekanikoa izan zen, auto-zale amorratua da-eta. Niri beragandik datorkit motorraren munduarekiko zaletasuna.

Zeuk parte hartu izan duzu lasterketetan?

Ez; gainera, diru asko behar da horretarako.

Lasterketa askotara joan izan zara, ezta?

Kataluniako rallya ikusten egon naiz, Lleidako auto-krosa, Formula 1eko lasterketak... Bai, bai, ahal dudanean joaten naiz lasterketak ikustera, asko gustatzen zait.

Orain ikasten diharduzu. Zer ikasten duzu?

Ingeniaritza mekanikoa. Mondragon Unibertsitateak Ander Vilariñoren ekipoarekin hitzarmena sinatu zuen, Azkoitiko ikerketa zentroan proiektua egiteko. Horretan sartzeko esperantza neukan, baina, hitzarmena bertan behera geratu da.

Pentsatzen dut mundu hone-tan lan egin nahiko zenukeela, ezta?

Nire betiko ametsa da autoen ekiporen bateko mekaniko izatea. Oso zaila da hortik bizitzea, baina, horixe da nire ametsa. Euskal Herriatik kanpora errazagoa da. Katalunian, esaterako, asko bultzatzen dute motorraren mundua.



Zubi berria zabaldu dute

Kalegoian, Tellerianeko eta Txasioneako etxeak eraitsi dituzte oraingo astean. Txasioneako etxeari zutik laga dizkiote bi fatxada. Bi etxe horiek eraitsita, etxebizitza berriak egingo dituzte hantxe.

Bestalde, Buztinzuri eta Ondarre artean egin duten zubi berria oraingo astean bertan zabaldu dute.

Gauzak horrela, azkenaldian izugarri aldatu da Buztinzuri ingurua. Zubi berriarekin, kale horretako urbanizazio lanak amaitu dituzte./A.I.


LABUR

Zaborra biltzeko egunak aldatu egin dituzte jaietarako

Egunotan herriko jaiak direla eta, zaborra jasotzeko egunak aldatu egin ditu Antzuolan Debagoieneko Mankomunitateak, herritarren beharrei erantzuteko.

Gaur, egubakoitza, etzi, domeka, eta datorren asteko astelehenean eta martitzenean pasatuko dira zaborra batzera.

Udalak herritarrei eskatu die zaborra jasotzeko egun berriok zeintzuk diren kontuan hartzea zaborra ater ahal izatzeko.



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Antzuolako jaiak 2004

Uztailaren 19an, astelehena, 22:00etan


Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko uztairen 16a / 194. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Iazko irabazleak eta sari emaelek lasterketa amaitu ostean Elgetako plazan.

Mendiko txirrindulari lasterketa domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Datorren domekan, uztairen 20an, Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa amateurrek goizez. Aurtengoa probaren hogeigarren edizioa izango da. Elgetan abiatu eta 124 kilometroko ibilbidea egingo dute.

Euskadiko 20. mendiko lasterketan txirrindulari amateurrek bilduko dira Elgetan. Proba domekan, hilaren 18an, izango da goizez, eta antolatzaileek 130 txirrindulari inguru espero dituzte irteera puntuan.

Trofeo Euskaldun zirkuiturako puntuagarria da lasterketa eta txapelketa horretan lehiari diharduten taldeetako ordezkariak izango dira Elgetan.

Maila horretako Euskal Herriko txirrindulari talde guztiek hartuko dute parte eta baita Espainiako beste hainbat tokitatik etorritakoek ere.

Hala ere, Avilako Bira jokotan denez, baliteke hainbat ziklista bertan izango direnez ez etortzea Elgetan parte hartzera.

Lasterketako parte-hartzaileen artean elgetar bat ere egongo da domekan: Xabier Aranguren. Eibarko Debarrena taldean dihardu gaur egun Aranguren, eta baita Gipuzkoako selekzioan ere.

Aranguren esan digunez, lasterketa gogorra izango da domekako. "Amateur mailan ibilbidea bera gogorra ez izan arren, erritmoa azkarra izaten da, eta lasterketa bakoitza ezberdina bada ere nahiko ongi ikusten dut nire burua parte-hartzaile moduan. Herriko lasterketa izanik urduri eta normalean baino tentsio handiagoarekin egongo naiz. Hala ere, ahalegina egingo dut ihesaldiren batean sartzeko eta aurre samar amaitzeko", esan digu Xabierrek.

Amateurren mailako egun bakarreko probarik gogorrenetakoa da Elgetakoa

TXIRRINDULARI EZAGUNAK

Gaur egun izen handikoak diren txirrindulari asko pasatu dira Elgetako lasterketatik. Euskaldunen artean Aitor Osa, David Etxebarría, Iñigo Cuesta, Jon Odriozola, Joseba Beloki eta Iñigo Landaluze, besteak beste. Unai Osa bi urtean podiumeko goren tokian egondakoa da.

IBILBIDE GOGORRA

Goizeko hamarretan abiatuko dira txirrindulariak Elgetatik eta 124 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Besteak beste, Areitioko gaina igo beharko dute eta baita Asentzio ere bi aldiz.

Adituen esanetan, ibilbidearen ezaugarriak eta okerruneak kontuan hartuta, amateurren mailan egiten diren egun bakarreko probetan lasterketa gogorrena eta garrantzitsuen da.

Antolatzaileetako batek esan digunez, Asentzioko igoeran hauts daiteke lasterketa eta bertan irabazlea erabaki.

Lasterketa 13:15 inguruan amaitzea aurreikusi dute, eta ondoren egingo da sari banaketa. Txapeldunak 240 euro eta garaikurra jasoko ditu.

LABUR

Tourreko Pirinioetako etapak pantaila handian emango dituzte Espaloian

Asteburu honetan Tourreko Pirinioetako etapak pantaila handian ikusteko aukera izango da Espaloia Kafe Antzokian. 4x6 metroko pantaila ipiniko dute bertan, eta zuzenean TVEtik botako dituzte irudiak. Bestalde, Tourra ikustera bertaraten direnek zenbaki bat jasoko dute eta euren artean Euskalteko kamisetak zozketatuko dituzte, bi egun bakoitzean. Goienak eta Euskaltelek egingo dako akordioaren bidez lortutako kamisetak dira.

Jaien balorazioa egiteko bilera datorren astelehenean izango da

Hilabete hasieran izan ziren Azoka Nagusiko jaiak eta aurki herriko auzo eta kaleetan ere jaiak izango dira, Goimendin, Salbador kalean eta San Roken, besteak beste. Baina jai nagusiak pasatuta aurten izandako ekitaldien balorazioa egiteko asmoa azaldu du Jai batzordeak. Horrela, gaizki egindakoak datorren urtean hobetzeko eta ongi joan dena errepikatzeko ahalegina egingo dute. Batzar hori astelehenean izango da Udaletxean, 21:00etan.

Mendi Federazioak lokal bat eskatu dio Udalarari Elgetan egoitza bat ipintzeko

Euskal Mendizale Federazioak eskaria egin dio Elgetako Udalarari herrian lokal bat laga diezaion euren egoitza bat ipintzeko. Egoitza sozial bezala erabili nahi dute lokala, eta uste dute kultur etxe-ko gelaren bat egokia izan daitekeela horretarako. Besteak beste, bilerak egiteko izango da egoitza hura, eta baita artxiboa bertan edukitzeko ere. Artxibo horretan, bileren aktak, araudiak... jasoko dituzte. Udalak eskaria aztertu behar du eta ondoren Mendi Federazioari helaraziko dio erabakia.

Aranzadi elkarteak webgunean ipini du Elgetako hilobieiei buruzko informazioa

Aranzadi elkarteak talde batek jardun zuen orain dela gutxi Espainiako gerrako hilobiak aztertzen Elgetan. Egindako aurkikuntzen ostean, txosten bat kaleratu dute bertan jasotakoaren berri emateko. Informazio hori guztia webgunean ipini du Aranzadi zientzia elkarteak. www.aranzadi-zientziak.org helbidera jo beharko dute interesatuek eta Berriak atalean aurkituko dute hilobien berri. Besteak beste, Intxortako borrokari eta Elgetaren hartzeari buruzko informazioa, Intxorta eta Antsoategiko hilobietara egindako bisiten txostenak, ikerkuntza taldea... Hori guztiori argazki eta mapekin lagunduta agertzen da.



GIZARTEA

Herriko nagusiendako zentroa inauguratuta

I.A.
Gaur goizean inauguratu dute Domingo Iturbe kalean Elgetako nagusiendako zentro balioanizduna. Udaletxeko eta Foru Aldundiko ordezkariak gain, herriko hainbat edadetuk ere egin du bertara bisita.

Goiko solairuan etxebizitza babestua egongo da. Bertan, sukalde, egongela, hiru logela eta bainugela daude.


Beheko solairuan, berriz, eguneko zentroa dago. Hemen, bi mahai ipini dituzte aulkiekin eta baita besaulki batzuek ere. Erabilera anitzeko gela honekin bate-

ra bainugela geriatrikoa, bulegoa eta bilgetia ere badaude bertan.

DOMEKAN IREKITA

Inaugurazio ofiziala gaur egin duten arren, zentroa irailean hasiko da funtzionamenduan. Izan ere, oraindik erabakitze dago zeinek kudeatuko duen egoitza. Interesatuek uztailaren 26ra arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko.

Baina aurrez egongo da zentroa ezagutzeko aukerarik. Domekan, uztailaren 18an, atak zabalik egongo dira herritarrendako 11.00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.




Eguneko zentroa beheko solairuan egongo da eta, besteak beste, hainbat mahai eta aulki ipini dituzte bertan.

KIROLA

Kontuak egiteko ordenagailu berria Intxorta elkarte

I.A.
Plazan egoitza duen Intxorta elkarte gastronomikora ordenagailu berria ekarri dute. Honen bidez, elkarteko kontuak bertan egingo dituzte bazkideek, eta makina hau ipintzearen helburua elkarteko kontuak egiterakoan lana erraztea da.



Ordenagailua ipini badute ere irailera arte ez dute bazkideek erabiliko.

Elgetako elkarteak garai berrietara egokitzen ari dira pixkanaka. Ozkarbin ipini zuten lehengo elkarteko kontuak ordenagailu batekin egiteko aukera eta aurki Intxortako bazkideek ere berdin jardungo dute.

Gaur egun, 62 bazkide ditu Intxorta elkarteak eta beste 24 erretiratu ere ohorezko bazkide dira. Hilero haien kontuak egitea ez da lan makala, eta teknologia berriak erabiliz kontuak egiten dituenari lana erraztea da makina honen helburua.

Oharren taulan ipini dute ordenagailua eta bazkide bako-

tzak txartel bat izango du. Txartel hori sartu eta teklaturik gabe, pantailan bertan sakatuz kontsumitutakoa apuntatuko da.

Informazioa zuzenean ordenagailu orokorrera bideratu eta bazkideei dagokiena kontu korrontetik kobratuko diete gero.



Saria, dantzariak ezagutzeagatik

Dantza Plazara argazki erakusketan 200 argazkitik gora egon dira ikusgai Espaloian. Horietako lau argazkitan agertzen zirenen izenak asmatzen zituenarentzat sari bat zuten gordeta antolatzaileek. Eli Arantzabalek asmatu ditu guztien izenak eta ordainetan Elgetako Kultura Etxearen irudi bat jaso du sari modura. Erakusketaren antolatzaileek esan digutenez, estimazio handia izan dute argazkiek eta jende ugari pasatu da eurak edo etxeok argazkietan topatzera./I.A.

Patxi Taberna

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobetua den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaituz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 